



MEMBER OF  
BASQUE RESEARCH  
& TECHNOLOGY ALLIANCE

t. +34 94 657 40 00  
info@azti.es | www.azti.es

# Lizitazio iragarkia

Derio, 2023ko ekainaren 8a

## 1. XEDEA

AZTI Fundazioak lehiaketa publiko bidezko lizitazio-prozedura irekiko duela iragarri du, **AZTIko zuzendaritza-taldearen lidergo-eredua indartzeko laguntza ezartzeko.**

## 2. ZERBITZUAREN IRAUPENA

Zerbitzuak **12 hilabeteko** iraupena izango du (**urtebete**) kontratua sinatzen den egunetik aurrera.

## 3. ESKAINTZA EKONOMIKOA

Lizitazio honetarako onartuko den gehieneko eskaintza ekonomikoa da **hogeita hamar mila euro (30.000,00€)**, zergak barne hartu gabe. Zenbateko horrek zerbitzua emateko beharrezkoak diren gastu guztiak barne hartzen ditu (materialak, bidaiak-gastuak, etab.).

Fakturazioa honela egingo da:

- % 25 kontratua sinatzen denean.
- % 25, 2023aren amaieran.
- % 25 2024. urtearen hasieran
- % 25 lana amaitzean.

Fakturak jaulkitzen diren egunaren ondorengo 60 egunetan ordainduko dira.





MEMBER OF  
BASQUE RESEARCH  
& TECHNOLOGY ALLIANCE

#### 4. PROPOSAMENAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Jasotako proposamenak irizpide hauen arabera baloratuko dira:

Eskaintza ekonomikoa	%50
Doitasun teknikoa	%25
Hobekuntzak	%20
Gizarte Erantzukizun Korporatiboko Politikak	%5

#### 5. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Lizitatuzaileek Irati Velezi aurkeztu ahal izango dizkiote proposamenak [ivelez@azti.es](mailto:ivelez@azti.es) helbide elektronikoa eta AZTIren edozein zentrotan, iragarki hau AZTI Fundazioaren webgunean argitaratzen denetik **2023ko ekainaren 15eko 12:00ak arte**.

Lizitatuzaileek helbide honetara jo ahal izango dute **informazio tekniko** gehigarria jasotzeko:

AZTI  
Estibaliz Arango  
[earango@azti.es](mailto:earango@azti.es)

AZTI  
Cristina Elorriaga  
[celorriaga@azti.es](mailto:celorriaga@azti.es)

#### 6. ESLEIPENA

Eskaintzak aurkezteko adierazitako egunean jaso ondoren, 7 laneguneko epean, AZTI Fundazioaren webgunean argitaratuko da lizitazioaren emaitza.

## 7. KONTRATAZIORAKO BALDINTZAK

- Hautatutako erakundea, AZTIrekiko zerbitzuak dirauen bitartean, lan, Gizarte Segurantza eta Laneko Segurtasun eta Osasunaren arloan indarrean dagoen araudia bete beharko du, eta, dagokionean, enpresa jarduerak koordinatu beharko ditu, 171/2004 Errege Dekretuaren arabera, ezarritako prozedura eta espezifikazioei jarraituz (hemen eskuratu daitezke <http://www.azti.es/es/coordinacion-de-actividades-empresariales/>)
- Hautatutako erakundeak, beste edozein agiri alde batera utzita, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du kontratua formalizatu aurretik.
- Hautatutako erakundeak kontratua formalizatzeko behar den dokumentazioa aurkeztu beharko du gehienez 20 eguneko epean, esleipena egiten denetik zenbatzen hasita. Dokumentaziorako, hautatutako erakundeak, [www.azti.es](http://www.azti.es) webgunean argitaratutako Kontratazioari buruzko Barne-Araudia bete beharko du.
- Baldintza teknikoek eta administratiboez gain, AZTIk positibo baloratuko ditu Kalitate, Segurtasun eta Osasun, Ingurumen, Mugikortasun Jasangarri eta Gizarte Erantzukizun Korporatiboko politikei eusten dietela frogatzen duten hornitzaileei.

Hornitzaileak politika horiek egiaztatzeko aukera ematen duten dokumentuak edo erregistroak sartuko ditu bere proposamenean (kalitate ziurtagiriak, ingurumenekoak, gizarte erantzukizuneko gaietako jardueri buruzko dokumentazioa, etab.).

## 8. DATUAK BABESTEKO ERREGELAMENDU OROKORRA

Arduraduna: Izena: AZTI FUNDAZIOA - IFK: G48939508 Posta helbidea: TXATXARRAMENDI UGARTEA Z.G. SUKARRIETA (BIZKAIA) Telefonoa: 946574000 Helbide elektronikoa: [lopd@azti.es](mailto:lopd@azti.es).

"AZTI FUNDAZIOAn ematen diguzun informazioa tratatzen dugu, zure eskaera egiteko, zerbitzuak fakturatzeko eta merkataritza harremanak mantentzeko. Zure datu pertsonalen tratamenduaren oinarri juridikoa merkataritza harremanak izateko eta zerbitzuak emateko dugun interes legitimoa da, eta behar-beharrezkoak dira helburu horretarako. Emandako datuak gorde egingo dira merkataritza harremanak dirauen bitartean edo legezko betebeharrak betetzeko behar diren urteetan, eta, harremana amaitu ondoren, erantzukizunak sor daitezkeen neurrian. Datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako, legezko



MEMBER OF  
BASQUE RESEARCH  
& TECHNOLOGY ALLIANCE

betebeharren bat dagoenean izan ezik, ezta zerbitzu tekniko eta informatikoen eta auditoretzaren hornitzaileei ere. Halaber, ez du inola ere zure datu pertsonalen nazioarteko transferentziarik egingo. Eskubidea duzu AZTI FUNDAZIOAn zure datu pertsonalak tratatzen ari garen jakiteko; ondorioz, eskubidea duzu zure datu pertsonaletan sartzeko, datu okerrak zuzentzeko edo ezabatzeke eskatzeko, datuak jada beharrezkoak ez direnean, baita ere aurkaratzeko, mugatzeko eta lekualdatzeko eskubidea ere, datuen babesari buruz aplikatu beharreko araudian xedatutako terminoetan, goian adierazitako helbidera idatziz jakinaraziz. Halaber, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute kontrolerako agintaritza eskumendunaren aurrean.

## 9. BALDINTZA TEKNIKOAK

Programak gutxienez honako atal hauek izan behar ditu:

### 1. Nork bere burua ezagutzea

Proposamenak assesment fase indibidual batekin hasi behar du, denboran zehar sendotzen diren hobekuntza-prozesuak errazteko oinarri gisa, zuzendaritza-taldeko kideen indarguneak eta hobekuntza-arlo posibleak identifikatu ahal izateko, elkarrekintza bateratuetan.

Horretarako, Portaeren banakako ebaluazioa, EQ eta indar bultzatzaileak (Trimetrix EQ) tresna erabiliko da.

Beharrezkoa da TTI Success Insights egiaztapena eta esperientzia frogagarria erabiltzea jokabideen banakako ebaluazioa, EQ eta indar bultzatzaileak (Trimetrix EQ) lidergoaren garapen-prozesuekin lotuta.

### 2. Lidergoaren eskumena garatzeko programa.

Programak eskumen hauek izan behar ditu, gutxienez:

- Komunikazioa eta entzute aktiboa
- Beste profesional batzuk garatzeko feedbacka
- Gatazkak negoziatzea eta kudeatzea
- Eskuordetzea.
- Talde-lana.



MEMBER OF  
BASQUE RESEARCH  
& TECHNOLOGY ALLIANCE

Programa, gehienbat, AZTIren instalazioetan edo erakundeak behar duen lekuetan egin behar da.

### **1. Egiaztapenak eta gutxieneko esperientzia antzeko programetan.**

Ahal dela, I+Gko, osasuneko eta antzeko inguruneetan.

- ✓ Coaching sistemikoko (ORSC) prestatzaileen akreditazioa.
- ✓ Agile coaching, Scrum Master edo antzeko ikastaroetako prestatzaileen akreditazioa.
- ✓ Coaches Co-activos gisa ziurtatutako prestatzaileak.
- ✓ Prestatzaile elkargokideak eta ICFk (International Coaching Federation) egiaztatutakoak, PCCko gutxieneko egiaztapen-mailarekin.
- ✓ Balio-bidezko antolaketa-kultura diagnostikatzeko tresnak egiaztatzea.
- ✓ Prestatzaileen egiaztapena TTI Success insights bidez, portaeren banakako ebaluaziorako tresnak, EQ eta indar bultzatzaileak (Trimetrix EQ) erabiltzeko.
- ✓ Tamaina ertain-handiko enpresetan Zuzendaritza Batzordeetako kide gisa trebatzaileek gutxienez 5 urteko esperientzia egiaztatua izatea.
- ✓ Esperientzia izatea lizitazio honetan proposatutakoaren antzeko 5 lidergo-programa ematen, gutxienez.